

Donostia ' n Gipuzkoa ' ko Aldundi - Jauregian,  
1921 ' ko Oñila ' ren 28 ' an.

Aurêko agirian aipatu diran euskaltzain berok bil-  
du ziran: urgazlerik batez.

Erabakiak:

1. Azkue jaunari Eronkarira joateko eskubide  
ematen zayo, euskerazko lanetan diardun. Beste lagun  
bat eraman dezake.

Lan berdiñetako Intza jaunari eskubide ematen  
zayo, Eronkari bertan euskal-aditzaren lanak egin  
ditzan. Euskaltzain aben ta Azkue jaunaren lagunaren  
domua Euskaltzaindiaren bizkar bijoa.

2. Euskaltzañen txostenak idazti-kuluz askotzen  
diranean, urgazleai ere bidali bear zayen erabakia  
artu da.

3. Euskaltzaindiak iñoiz lan gañantzi bat argita-  
ratzekoan, olako edo alako euskaltzañaren idazti edo  
idazti zatia dala, aitortu bear ez dala, baizik Euskal-  
tzaindi bakañ-bakañena, erabaki da aoz betez.

4. *Eskutitzen irakurketa*. Hulembeck-ena, de-  
duzko euskaltzañaren izentza artu duela esanik, ta  
alduanaz gogoz lan egingo duala Euskeraren alde.  
Lekarozko Joakin Ezkieta-rena, *Lorestia* gai dala,  
Schuchardt-ena alemaneraz, Aita Lezorena, Aita Juan  
R. Lafinagarena aita Zabalatzaz, Barandiaran ta  
Manuel Lekuona jaunena, onako onek esanaz, Du-  
rango'ko Euskal-egunetarako eman nai zitzayon lanaz  
zamatzen ez dala.

5. Euskal-egunoy etarako Ormaetxea Jesusen La-

gundikoari lan auxe egotzi zayo: Euskal-neurtzibide ta olefrintza. (Métrica y poesia vasca). Manterola Gabireleri, Durango-eriburuko seme ospetsuen itzaldia.

6. Mr. Marien-i erantzun: Euskaltzaindiak guztizko begi onaz ikusten duala bere lan edera «La Tombe basque», ta Euskaleñian idazti ori azaldu ta artu dedin, berak ta Eusko-Irakaskuntzak alegin egingo dutela noski.

7. Colins-jaunak eskeñi dituan gutunak artu, bañan adierazo garesti-xamarak dirala, ta merkexiagoko biderik ez ote dan.

8. Euskal-egunetarako autu-ta dagon batzoñdeari eskubide oso-osoa ematen zayo, egun ayek ondoen atontzeko.

9. Euskaltzaindiaren sorozpidez Parisen dagon Aprais ikasle azkarari galdetu: Alemanira datoñen urtez joango ote litzaken bañan arlo onek Aita Polikarpo Iraizoz-enarekin zer ikuste baduelako, erabaki osoa urango batzañaldirako laga da.

10. Colins - ek Euskaltzaindiari saldu dizkiyon idazti, eskutitz ta gutun xortaren adi-leñoa Maidagan ta Oyarzabal jaunak atera bezate, ta Euskaltzañai bidali.

11. Oyartzungo Kaputxino Aita Eusebiok argitazten duen euskerazko ingi txiki batetzaz, Azkue jaunak Euskaltzaindiari dasayo: (berau, Eguskitza ta Intzagarai batzoñdekideen aburuz) Eusebio Kaputxinoari, auñerontz ezertan abiatu bañan len, galdetu zayola: a) zenbat eusle dituan ingitxo oñek b) zenbateko domua dakañen beroren argitalde bakoitzak ta c) on litzaz-

kela, Euskaltzaindiaren idazkeraz ingitxo ori azaltzea. Euskaltzaindiak aitzakotzat artu du, Azkuek dasana.

12. Euskaltzaldiaren erabakiz, emendik aurrerontzean, Bareño ta Oyarzabal langile azkar ta adoresuei, Azkue jaunak eskatuko diye astero-astero, eren zer ta zenbateko lanen txostenaz; ta lanak dakaften mamiaz sariya ere emango zaye.

13. *Estudios Vascos* edo Euskal-Irakaskuntzak Euskaleriko erri, ibai, mendi ta enparau izenak Euskaltzaindiari bidali dizkiyo, Euskaltzaindiak zuzen deritzanaz, artez edo onetsi ditzan. Euskaltzañak, zein efidiko diranez, lan onen zatia artu dute.

14. Kanpion jaunak euskal-mintzokeraren idazti edo liburutxo bat argitaratu bear litzakela, diyo, Euskaltzañak oretan ere daukate iritxita gogoā, bañan ez da oretzaz erabakirik artu.

Ta besterik ez da, otoizaz amaitza eman zayo batzañaldi oni.

---

**Donostia 'n Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian,  
1921 'ko Garagañila 'ren 27 ' an.**

Euskaltzain abek batzañera bildu ziran; Azkue, maipuru, Urkixo, Kanpion, Lakonbe, Landeñetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Lhande, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Aita Lhandek, Prantziko Tolosan Gabel jaunak izan dituen euskeratzazko itzaldi mamitsuen xea-